


URTE GOZOAK

Ipuinak, lotura sendotzeko tresna

Helduak eta haurrak elkarrekin irakurtzea lagungarria da bien arteko lotura afektiboa sendotzeko. Baina, hortaz harago, ipuinak berak bereziki egiten du bat haurraren barne-munduarekin eta errealitatea bizitzeko duen moduarekin, **Juan Carlos Alonso** haur psikologoaren esanetan.



Bazen behin batean.... ipuinak eta literatura biziki maitezituen haur psikologoa, Juan Carlos Alonso izenekoa (Errenteria, 1959). Eta berari eskatu dio HAZI HEZIk gurasoek haurrei irakurtzearen, edo elkarrekin irakurtzearen onurak azaltzeko. Izan ere, haur eta nerabeen behar psikoemotionalak ondo ezagutzen ditu, Donostiako kontsultan nahiz ikastxeetan haur eta nerabeekin psikologo gisa egiten duen lanari esker, eta ibilbide profesionala bere pasioetako batekin lotzen du: literaturarekin. Horrela, aspaldiko urteetan haur literatura eta haurren garapen emozionala eta psikologikoa lantzen du, gurasoei, irakasleei eta bitartekariei ematen dizkien ikastaroetan. Gainera, Galtzagorri elkarteko kidea da.

Bere esperientziatik abiatuta, **haurren literaturaren onurak bi alderditatik** etor daitezkeela uste du Alonsok. **Batetik, ekintzak berak, irakurtzeak, eta, bereziki, elkarrekin irakurtzeak sortzen dituen onurak leudeke. Baina, horrekin batera, tresnak berak, alegia, ipuinak haurrari eragiten dion onura** izan du hizpide.

Ekintzatik hasita, alegia, irakurtzetatik bertatik, haurrari askotariko onurak sortzen dizkio bere garapen

integralean: psikologikoki, intelektualki, balore aldetik, heziketa emozionalean, gaitasun linguistikoetan, jakinmina eta sormena sustatzean... Gainera, **irakurtzeko ekintza hori guraso edo hezitzailearekin batera egiten badu, komunikazio afektiborako ekintza bilakatzen da**: "Ipuina eta haur literatura bihurtu daiteke haurraren eta helduaren arteko lotura afektiboa sendotzeko tresna", dio Alonsok. Beraz, haur batek ipuina irakurtzeko eskatzen dionean helduari, "batetik, ondo pasatu nahi du, baina, horrekin batera, helduarekin une goxo bat izan nahi du", eguneroko betebeharrak eta aginduen dinamikatik kanpo.

Ipuinak haurraren hizkuntza mintzo Baina, hasieran esan bezala, irakurtzeko ekintzaz harago, tresnak berak, ipuinak edo haur literaturako beste edozein baliabidek, haurraren garapen afektiboan eta psikologikoan onurak dakartza. "Haurrak errealitatea ez du guk bezala ikusten, sentitzen, ulertzen. Errealitatea egozentrismotik ikusten, sentitzen eta ulertzen du. Zer esan nahi du horrek? Bada, zorionez oraindik ez duenez trebetasun kognitiborik, ez dituen arrazonamendua, ulermena eta logikaren gisako tresna kognitiboak garatuak, eta afektiboki

ere ego-zalea denez, errealitatea berak sentitu nahi duela; NI-a da dena. Ondorioz, fikzioa edo ipuina eta haurraren maila psikoafektiboa bat datoz, bat egiten dute: fantasia, sormena, pentsamendu magikoa, jolasa... daude beregan, *balitz* da hitza. Jean Piaget psikologoaren esanetan, 7 urte arte irauten du fase egozentriko horrek".

Beraz, haur psikologiaren esanetan, **haurren barne munduak eta haur literaturak konektatu egiten dute, hizkuntza berean mintzo baitira**. "Horregatik liluratzen du hainbeste haurra fantasiak edo ipuinak. Bere barruan sentitzen duena, bere nahiak eta bere beldurrak, bereziki ulertzen ditu ipuinaren eta fikzioaren bidez".

Aldiz, haurrak ez du ulertzen logikaren eta arrazonamenduaren hizkuntza. Ondorioz, haurrak nekez ulertuko du txupetea utzi egin behar duela *handia delako*, edo *ez diola beldurrik izan behar* iluntasunari *munstroak ez direlako existitzen*.

Horren adibide gisa, gurasoekin izandako saio batean gertaturikoa gogoan du Alonsok. Gurasoetako batek, teoria hori praktikan jarri eta ipuina asmatu zuen txupetea utzi

nahi ez zuen semearentzat. Izan ere, ordu arte umeari azaldutako argudio guztiak alferrikakoak izan ziren nonbait. "Bada, *Bazen behin* batekin hasi zuen istorioa, eta hor dago lehen gakoa arrakastarako, hasiera horrekin haurrak bai baitaki fikziora, mundu magikora daraman bidaia hasiera doala, eta segituan konektatzen du". Ondoren, baso batean bizi zen dragoiaz hitz egin zion haurrari, zeinak haur txikiak jaten zituen; parez pare, haurrak salbatu nahi zituen iratxoa ere bizi zen basoan. Eta hor arrakastarako bigarren gakoa, Alonsoren esanetan, elementu fantastikoak sartu baitzituen kontaketa, eta gainera, bata gaiztoa eta bestea zintzoa: "Bereizketa horrek pertsonaiekin identifikatzen laguntzen die".

Bada, aitzak asmatutako ipuinean, iratxoa herriko etxe guztietara joan zen, dragoia garaitzen lagunduko zioten haurren bila, elkarrekin abentura bizitzera gonbidatuz. Etxeetako batean, haurra txupetearekin aurkitu zuen, ordea, eta iratxoak ez zuen berearekin eraman, "haur txikia zelako eta ezin zituelako handien abenturak bizi oraindik". Azkenean iratxoak eta umek garaitu zuten dragoia. "Aita hori emozionatuta etorri zitzaidan kontatzera nola ipuina kontatu eta egun berean etorri zitzaizen haurra txupetea eskuan hartuta, ez zuela nahi esanez, bera handia zela jada. **Hainbeste aldiz arrazoiaren bidez azaldutakoa ipuinaren bidez ulertu zuen azkenean umek!**".

Izan ere, Alonsok azaldu du ipuinak komunikazio intuitiboa duela oinarri, eta ez komunikazio logiko-mentala. Aurrez esan bezala, komunikazio intuitibo hori erabat bat dator haurraren barne hizkuntzarekin.

Pentsamendua garatzen

Dena dela, 7 urte arteko fase egozentriko horretan, bi azpi-etapa bereizten dituzte psikologiaren eremuan. Hasierako etapan, 4 urte arte edo, pentsamendu magikoa da nagusi haurraren; ondorioz, mahai ertzarekin min hartzen badu, adibidez, haserretu egingo da mahaiarekin, jo egin diolakoan; edo zapi batekin estaliz gero jostailua,


Nola irakurri elkarrekin?

Elkarrekin irakurtzea komunikazio ekintza da, ekintza afektiboa. Horretaz oharturik, edozein komunikazio ekintzatan bezala, ez da esandakoarekin edo hitzarekin bakarrik komunikatzen; "bereziki, esaten ari garenekiko sentitzen dugunarekin komunikatzen dugu". Beraz, Alonsoren ustez komenigarria da ez-ahozko trebetasunak ere lantzea: haurraren gaitasunak egotea, elkar ukitzea, begietara begiratzea, aurpegiko espresioa zaintzea...

Horrekin batera, *nola* ez ezik, *zer* kontatu ere kontuan hartu behar dela uste du; alegia, kontuan izan behar dela baliabidearen kalita-

tea. Horrekin lotuta, haur literatura genero desberdinak erabiltzea proposatzen du: "Egun batean album ilustratu bat, bestean ipuina, istorio bat inolako euskarririk erabili gabe, abesti bat, zeure anekdota propio bat, poesia bat.... aniztasuna, bai istorio motetan, bai kontakizunean, bai estetikan. Alde horretatik, beharra dago guraso eta irakasleen artean irizpide kritikoak garatzeko".

Dena dela, Alonsok gomendio bat egiten du nagusiki: "Hainbat teknika daude, baina nik beti esaten diet gurasoei; 'badakizue nola kontatu behar duzuen ipuina? Bihotzarekin'. Orduan munduko ipuin kontalari onenak izango zarete".



desagertu egin dela sinetsiko du. Bigarren fase batean, aldiz, 4tik 7 urtera bitartean, pentsamendu sinbolikoa garatzen hasiko da haurra, eta metaforak nahiz ipuinak eman nahi dion mezua hartzen hasiko da. Ipuinak askotan zerbait irakatsi nahi baitio haurrari, metaforak dira, eta loturik daude pentsamendu sinbolikoarekin. "Metafora ulertzeko pentsamendu sinbolikoa garrantzia izan behar du, eta, era berean, ipuinak edo metaforak laguntzen dio pentsamendu sinbolikoa garatzen."

Horrekin batera, irudikatzeak eta introspektzioarako gaitasunak garatzen laguntzen du fikzioak. "Irudikatzeak esan nahi du estimulu edo kanpoko objektu gabe neure barruan eraikitzen dudala irudia, begiak itxi eta ikusten dudala". Hain zuzen ere,

gaur egun haurrek eskura dituzten ikus-entzunezko baliabide guztiekin, Alonsoren ustez, irudikatzeak gaitasuna landu beharreko kontua da, "gehiegizko kanpo estimulazioa baitute". Izan ere, "irudikatzea ohitura kognitibo bat da, eta, ez badu txikitatiko landu ahozkotetasuna, ez du garatzen ahalmen hori; ipuin bat kontatzen diotunean, ez da gai izango hori entzun eta irudiak eraikitzeak."

Eta, irudikatzean dago, hain zuzen, literaturaren xarma handienetako bat, Alonsoren esanetan. Izan ere, "zer da bada sormena eta literatura? Norbere munduan sartzea, buruarekin eta bihotzarekin bidaiatzea, zure bizipenekin eta sentipenekin bidaiatzea". Eta hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan.